

INFORMAZIO KANALEN BITARTEZ JASOTZEN DIREN INFORMAZIOAK KUDEATZEKO, IZAPIDETZEKO ETA IKERTZEKO PROZEDURA

1. DEFINIZIOAK

Cuadrilla de Ayala(r)en barruko informazio kanalen bitartez jasotzen diren informazioak kudeatzeko, izapidetzeko eta ikertzeko prozeduran arautzen da nola kudeatu, izapidetu eta ikertu behar diren 2/2023 Legearen esparruan jasotzen diren informazioak (2/2023 Legea, otsailaren 20koa, arau hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duena).

2. EREMU SUBJEKTIBOA: INFORMATZAILEAK ETA UKITUTAKO PERTSONAK: ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

2.1 INFORMATZAILEAK

Barruko informazio sistema (entitate bakoitzerako eratutako barruko kanalen egitura) Cuadrilla de Ayala(r)en enplegatu publiko, besteren konturako langile, langile autonomo, akziodun, partaide, administrazio, zuzendaritza eta gainbegiratzeko organoetako kide, laguntzaile eta azpikontrataturako langile guztien eskura egongo da.

Halaber, Cuadrilla de Ayala(r)ekiko lan edo estatutu harremana amaitu den langileek, boluntarioek, bekadunek eta prestakuntza aldian dauden langileek ere erabili ahal izango dute; gainera, hautaketa prozesuan edo kontratatu aurreko negoziazioan 2.1 apartatuko arau hausteetako baten berri jakin eta oraindik entitatearekin lan harremanik ez duten pertsonak ere erabil dezakete, eta Cuadrilla de Ayala(e)k egiten duen jarduerarekin kontaktua duten hirugarren pertsonak ere.

Aurrean aipatzen diren pertsona guztiak informatzaileak izan daitezke.

Komunikazioan, informatzaileak jakinarazpenak jasotzeko helbidea, posta elektronikoa edo toki segurua adierazi ahal izango du. Nolanahi ere, barruko informazio kanaletan komunikazio anonimoak aurkeztu ahal izango dira.

Komunikazioa aurkezten dutenek eskubidea daukate hirugarrenei nor diren ez jakinarazteko. Barruko informazio sistemetan ez da bilduko informatzaileak nor diren jakiteko erabil daitezkeen daturik. Gainera, neurri tekniko eta antolamendu neurri egokiak eduki behar dituzte ukitutako pertsonen eta jasotzen diren informazioetan aipatzen diren pertsonen datuen konfidentziasuna eta haien nortasuna isilpean mantentzeko, batez ere informatzailea nor den, bere buruaren berri eman badu.

Informatzailea nor den agintaritza judizialari, fiskaltzari edo administrazio agintaritza eskudunari soilik jakinarazi ahal izango zaio zigor ikerketa, diziplina ikerketa edo zehapen ikerketa baten esparruan. Hain zuzen ere, informatzailea nor den esango bazaio norbait, aurretik horren berri emango zaio berari,

horrek ikerketa edo prozedura judiziala arriskuan jartzen ez badu. Agintaritzak eskudunak informatzaileari jakinarazten badiu nor den esango zaiola norbait, idazki batean azalduko dio zergatik ematen diren datu konfidentzial horiek.

Nolanahi ere, informatzaileak ez dauka gertatu dena kalifikatzeko ardura; aitzitik, zer gertatu den ahalik zehatzen azaldu besterik ez du egin behar. Informatzaileak ezin du hori egin, jokabide isuria eta ezagutza juridiko fakultatiboak direla eta.

Honetarako, honako hauek bete behar dira:

- Konfidentzialtasuna
- Anonimotasuna; komunikazio anonimoetan, sisteman tresna bat egon behar litzateke informatzaile anonimoarekin komunikatzeko.
- Informatzailearen kontrako errepresaliarik ez.
- Ikerketa inpartziala.

Informatzaileek babes neurriak ezartzeko eskubidea edukiko dute, baldin eta komunikazioa edo agerrarazte publikoa egiten denean informazioa egiazkoa dela pentsatzeko zentzuzko arrazoiak badauzkate, nahiz eta frogak eztabaia ezin ez aurkeztu, eta komunikazioa ezarritakoarekin bat etorri egin bada.

Horrenbestez, honako babes neurri hau ezartzen da: berariaz debekatuta dago komunikazioen bat aurkezten duten pertsonen kontrako errepresaliatzat har daitezkeen ekintzak, mehatxuak eta errepresalia saioak barne. Debeku hori honako hauei ere aplikatuko zaie:

- Langileen legezko ordezkariak, beren egitekoetan ari direla, hau da, informatzaileei aholkuak eta laguntza ematen;
- Informatzailea lanean ari den entitatearen barruan, hari prozesuan laguntza ematen dioten pertsona fisikoak;
- Informatzailearekin zerikusia duten pertsona fisikoak (lankideak eta ahaideak), baldin eta errepresaliak jasan ahal badituzte;
- Informatzaileak lan egiten duen, laneko harremanen bat daukan edo partaidetza adierazgarria daukan pertsona juridikoak.

Beraz, laburbilduta, informatzaileak honako eskubide hauek dauzka:

- Erabaki dezake komunikazioa anonimoa den edo ez; izena ematea erabakiz gero, isilpean gorde behar da.
- Komunikazioa ahoz edo idatziz egin dezake.

- Ikerketaren inguruko jakinarazpenak jasotzeko helbidea, posta elektronikoa edo toki segurua adieraz dezake edo jakinarazpenak jasotzeari uko egin.
- Konfidentziasunerako eskubidea: barruko informazio sistemaren arduradunak ezin dio esan ukitutako pertsonari nor den informatzailea, legez araututako kasuetan eta informatzaileak baimena ematen duenean izan ezik, baldin eta, bestela, ikerketarekin aurrera egiterik ez badago.
- Datu pertsonalen babesaren legerian ezarritako eskubideak erabil ditzake.
- Errepresaliarik ez jasateko eskubidea, onustean arituz gero.
- Komunikazioaren izapideen egoeraren berri eta ikerketaren emaitzen berri jakiteko eskubidea, eta salaketaren ebazpenaren edo artxiboaren jakinarazpena jasotzeko eskubidea.
- Kode honen 2.1 apartatua arautzen diren arau hausteetako baten berri emanez gero, babesa jasotzeko eskubidea, baldin eta komunikazioa edo agerrarazte publikoa egiten denean informazioa egiazkoa dela pentsatzeko zentzuzko arrazoiak badauzka.

Beste alde batetik, informatzaileak honako betebeharrak dauzka:

- Onustean jardun behar du. Komunikazioa gaitzustearekin eginez gero, baliteke informatzailearen kontrako diziplina edo zehapen neurria ezartzea.
- Salatutakoarekin zerikusia duten datuak eta agiriak aurkeztu behar ditu.
- Konfidentziasunaren betebeharra: informatzaileak ezin dio esan nor den salatutako pertsona barruko informazio sistemaren arduraduna ez beste ezein organo ez pertsonari, legez salbuetsitako kasuetan izan ezik.

Baldin eta arau hauste administratibo batean parte hartu duen pertsona batek haren berri ematen badu, onustean eta laguntzeko borondatearekin, eta horretarako komunikazioa ikerketaren edo zehapenaren prozedura hasi delako jakinarazpena egin baino lehen aurkezten badu, Cuadrilla de Ayala(e)k, salatutako gertaeran izan duen parte hartzea edo lotura kalifikatzeko edo, behar denean, zehatzeko, bidezko zehapen administratiboa bete beharretik askatu ahal izango du txosten arrazoitu baten bitartez, honako hiru baldintza hauek betez gero: arau haustea bertan behera utzita egotea komunikazioa edo agerraraztea aurkezten duenerako, arau haustean parte hartu duten edo hartan lagundu duten gainerako pertsonak identifikatzea, eta, behar denean, egozten zaion kaltea konpontzea.

Arau haustean parte hartu duten gainerako pertsonen ere zehapena arindu ahal izango zaie gertatutakoa argitzen, parte hartu duten beste batzuk identifikatzen eta kalteak konpontzen edo murrizten laguntzen duten heinean.

2.2 UKITUTAKO PERTSONAK

Ukitutako pertsonen honako eskubide hauek edukiko dituzte:

- Errugabetasun presuntziorako eskubidea, defentsa eskubidea (abokatuarekin joan daiteke), nor den isilpean gordetzeko eskubidea eta gertaeren eta prozeduraren datuen konfidentzialtasuna bermatzeko eskubidea.
- Beraren aurka edo berak egindako jarduketa baten aurka aurkeztutako salaketa baten ondorioz ikerketa prozesu batean dagoela ahalik azkarren jakinarazteko eskubidea. Komunikazioan honako datu hauek eman behar zaizkio gutxienez: nor den kudeaketaren arduraduna, zer salatzen den, zer eskubide daukan eta zein den salaketa izapidetzeko prozedura.
- Espedientea eskuratzeko eskubidea, alegazioak idatziz aurkezteko eskubidea eta bere datu pertsonalak tratatzeko eskubidea. Komunikazioaren berri ematean zer ari den ikertzen azalduko zaio laburbilduta, baina ez da agertuko informatzailea nor den edo espedienteak ukitzen dituen beste pertsona batzuen berri jakiteko aukera ematen duen informaziorik batere.
- Oker dauden edo osorik ez dauden datu pertsonalak zuzentzeko eskubidea.
- Salaketaren emaitzaren berri jasotzeko eskubidea (ebazpena, largespena edo artxibatzea). Ukitutako pertsona bati salatu dutela jakinarazteko komunikazioak arriskuan jartzen badu Cuadrilla de Ayala(r)en gaitasuna gertatutakoa behar bezala ikertzeko edo frogak biltzeko, salatuak frogak ezabatu edo aldatu ditzakeelako, komunikazioaren bidalketa entzunaldiko izapidea egin arte atzeratu daiteke.

3. **BARRUKO INFORMAZIO KANALA: EREMU OBJEKTIBOA, FUNTZIONAMENDUA ETA IDENTIFIKAZIOA**

3.1 **ESPARRU OBJEKTIBOA ETA FUNTZIONAMENDUA**

Barruko informazio kanala barruko informazio sisteman txertatuta dago. Kanalak aukera eman behar du komunikazioak idatziz edota ahoz egiteko. Gainera, informatzaileak 7 eguneko epealdia edukiko du honako hauei buruzko komunikazioak aurkezteko aurrez aurreko bilera batean:

- a. Europar Batasunaren zuzenbideko arau haustek izan daitezkeen ekintzak eta ez-egiteak.
- b. Arau hauste penal edo administratibo astuna edo oso astuna izan daitezkeen ekintzak eta ez-egiteak. Nolanahi ere, babespean egongo dira Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzari galera ekonomikoa eragiten dioten zigor arloko arau hauste guztiak eta administrazio arloko arau hauste astun eta oso astun guztiak.

Barruko informazio kanala da bide lehenetsia ekintza eta ez-egite horien berri emateko. Nolanahi ere, komunikazioa ahoz, aurrez aurreko bilera batean, telefonoz edo ahots mezu baten bidez eginez gero, komunikazioa jarraian azalduko diren moduetako batez dokumentatu beharko da, informatzaileak ados

dagoela adierazi ondoren:

- Elkarrizketaren grabazioa, formatu seguru, iraunkor eta erabilerrazean egina.
- Elkarrizketaren transkripzio osoa eta zehatza, tratamenduaren arduradunak langileak egina.

Gainera, komunikazioa barruko kanalen bitartez egiten duten pertsonen argi eta modu ulergarrian azalduko zaie kanpoko zer informazio kanal erabil dezaketen agintaritza eskudunei eta, behar denean, Europar Batasuneko organoei eta erakundeei komunikazioak helarazteko.

Komunikazioa informazio kanal baten bitartez egiten bada, prozesuaren lehen urratsa da kanal horren bidez idatziz adieraztea zer gertatu den, zer arau hautsi den edo zer ez den bete. Komunikazio kanala barruko informazio sistemaren arduradunak kudeatuko du, kudeaketan bermatzailea den aldetik, berariaz izendatutako pertsonaren bitartez.

Komunikazioa jaso ondoren jaso agiria emango zaio informatzaileari zazpi egun natural igaro baino lehen, komunikazioaren konfidentzialtasuna arriskuan jar daitekeenean izan ezik.

Erantzuna emateko epealdiaren barruan informatzailearekin hitz egin ahal izango da eta, beharrezkotzat jotz gero, informazio gehiago eskatu ahal izango zaio. Halaber, ukitutako pertsonari zer ekintza edo ez egite egozten zaion jakinarazi beharko zaio eta esateko daukana entzun behar da beti; gainera, haren erregabetasun presuntzioa eta ohorea errespetatzeko eskatuko da.

Ikerketa jarduketei komunikazioa jasotzen denetik 3 hilabete igaro baino lehen eman beharko zaie erantzuna, komunikazioaren jaso agiria eman bada. Komunikazioaren jaso agiririk ematen ez bada, 3 hilabeteko epealdia egongo da erantzuteko komunikazioa egin ondoko 7 egun naturaleko epealdia amaitzen denetik. Kasua oso konplexua dela eta erantzuna emateko epealdia luzatu behar bada, 3 hilabeteko epealdia gehitu ahal izango da. Halaber, barruko informazio sistemaren arduradunak Fiskaltzara bidali beharko du berehala delitu zantzuak ageri dituen informazioa, edo Europako Fiskaltzara, gertatutakoak Europar Batasunaren finantza interesak ukitzen baditu.

3.2 **BARRUKO INFORMAZIO KANALEN IDENTIFIKAZIOA**

Prozedura honen 2. atalean ezartzen den eremu subjektiboan dagoen pertsona batek aurreko puntuan azaldutako jokabide baten berri badaki (zigor arloko arau haustea, administrazio arloko arau hauste astuna edo oso astuna, edo Europar Batasunaren zuzenbidearen arau haustea), informazio sistemaren arduradunari jakinarazi beharko dio modu hauetako bat erabiliz:

a. Idatziz:

1. Postaz; postontzia: Bengolarra 1 - 1. solairua 01138 Ondategi (Araba); jasotzailea: barruko informazio sistemaren arduraduna.
2. Berariaz gaitutako baliabide elektronikoa; helbide elektronikoa: Kanalaren identifikazioa:

Web orria

b. Ahoz:

1. Barruko informazio sistemaren arduradunarekin bilduta; elkarrizketa formatu seguru, iraunkor eta erabilerrazean grabatu daiteke edo transkripzio osoa eta zehatza idatz dezake tratamenduaren ardura daukan langileak.

4. ORGANO ESKUDUNA

Salaketak jasotzeko eta izapidetzeko eskumena Cuadrilla de Ayala(r)en barruko informazio sistemaren arduradunak/prebentzio batzordeak edukiko du, batzorde horren idazkariaren bitartez, berari eskuordetzen baitzikio sistemaren arduradunak barruko informazio sistema kudeatzeko eta ikerketa espedienteak izapidetzeko ahalmenak.

Salaketak aurrean aipatutako pertsonak izapidetuko ditu. Hain zuzen ere, bitarteko horretatik jasotzen diren informazio guztiak ikertuko ditu, bere kabuz eta independentziarekin, sinesgarritasunik badute, adierazitako gertaera prozedura honen eremu subjektiboaren atalean aipatzen diren arau hausteetako bat bada eta agerikoa ez bada komunikazioak ez daukala oinarririk edo ez dagoela delitua egin delako zentzuzko zantzurik.

Arrisku Penalen Prebentzio Batzordeko kide baten jokabideari buruzko informazioa jasotzen bada, batzordeak ezin izango du esku hartu, interes gatazka dela eta; gainera, batzordekide izateari utziko dio informazioa jasotzen denetik eta hala egongo da informazioaren ebaluazioak eta, bidezkoa denean, ikerketak irauten duen bitartean.

Barruko informazio sisteman jasotzen diren informazio guztien idatzoharrak egingo dira erregistro liburuan, ikertu zein ez, estatistikak egin ahal izateko.

Urtero, Arrisku Penalen Prebentzio Batzordeko idazkariak jasotako salaketei, egindako ikerketei eta horien emaitzei buruzko txosten anonimizatua egingo du. Txostena Cuadrilla de Ayala(r)en administrazio kontseiluari aurkeztuko zaio.

5. DATU PERTSONALAK BABESTEA

Salaketen kanalaren bitartez jasotzen diren komunikazioen ondorioz egin beharreko datu pertsonalen tratamenduak honako hauetan ezartzen denarekin bat etorriz egingo dira: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa; 7/2021 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, arau hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalak babesteari buruzkoa.

Ez da bilduko emandako informazioa tratatzeko beharrezkoa dela agerikoa ez de datu pertsonalik. Gainera, nahi ez dela biltzen diren datu pertsonalak berehala ezabatuko dira, luzamenik gabe.

Datuen babesarekin eta segurtasunarekin lotutako helburuak konfidentzialtasuna, osotasuna eta erabilgarritasuna dira, informatzailea eta ukitutako pertsona babesteko; honako printzipio hauek bete behar dira:

- Ez kateatzea, hau da, datuak bildu diren xederako soilik tratatzea eta baloratzea.
- Gardentasuna, zeina ezinbestekoa baita prozedura guztietako datuak, prozesuak eta sistemak kontrolatzeko eta zuzentzeko, bai eta datu legitimoak tratatzeko eta, beharrezkoa izanez gero, ukitutako pertsonak beren adostasuna adierazteko ere.
- Esku hartzeko gaitasuna, informatzaileak eta ukitutako pertsonak noiznahi erabili ahal izan ditzaten beren eskubideak.

6. KANPOKO INFORMAZIO KANALEN IDENTIFIKAZIOA

Pertsona fisikoek lege honen aplikazio eremuan dauden ekintza eta ez-egite guztiak jakinarazi ahal izango dizkiete Informatzailea Babesteko Agintaritza Independenteari (AAI), sortu ondoren, edo autonomia erkidegoetako antzeko agintaritza edo organo eskudunei, zuzenean edo barruko kanalaren bidez.